

DONOSTIA

Aiete
 Altza
 Amara Berri
 Amara Zaharra
 Añorga
 Antigua
 Bidebieta
 Egia
 Erdialdea
 Gros
 Ibaeta
 Igeldo
 Intxaurreondo
 Loiola
 Martutene
 Parte Zaharra
 Zubieta



Harpidetu zaitez

Tolosaldeko hitza
 Oarsoaldeko hitza
 Urola-Kostako hitza

ALTZA

GUTUN >>

Gezur interesatua

Sozialistak, nazionalistak eta Batasuneko ordezkariak ados jartzen direla ikustea gauza ederra da. Kontua da ez direla ados jartzen Pasaiako badiaren inguruan bizi garenen eguneroko eta sakoneko arazoak konpontzeko, baizik eta arazo berriak eta bizilagunen arteko istiluak sortzeko.

Pasaiako Mugen Batzordea pasaitarren babesa eskatzen ari da gatazka aurrera eramateko eta, horretarako, gezurra ereiten ari da. Vargas Ponce ilustratuak Pasaiari Altzaren puska handi bat eman nahi zion: 49 baserri eta bertako biztanleak, hauen borondatearen aurka.

Ez zuen lortu, eta Pasaiako udal barrutia San Pedro, San Juan eta portuari irabazitako lurrekin osatu zen. Hauen dira Pasaiako benetako mugak, ez Vargas Poncek nahi zituenak, ezta orain politiko horiek nahi dituztenak ere.

Gezurra da «Bidebieta garai batean hutsik zegoela». Guardaplata, Arnaobidao, Moneda, Santa Barbara, Gomistegi oinetxeak Pasaiako beste edozein oinetxe bezain zaharrak dira.

Gaur egun ere, milaka auzokide bizi dira bertan eta eskubide osoa daukate erabakitzeko. Vargas ilustratuari bost axola zizaion auzokideen iritzia, eta politiko hauei ere bost axola zaiela dirudi.

Bai jaunak, zuen eskaera astakeria da. Eta astakeria dela dakitenez, negoziazioaz hitz egitea gustatzen zaie. Zer negoziatu? Auditz-Akular eta Landarro? Politiko horiek, Donostiakoak bezala, Altzako lurralde hauek hutsik ikusi nahi dituzte, beraien interesen arabera banatu eta etkez betetzeko. Ez dira ez inozoak, ezta gezurtiak ere, oso azkarrak dira.

IÑIGO LANDA >> ALTZA

>> BIDALI ZURE IRITZIA

AGENDA

> EKITALDIA

ERDIALDEA. Liburu sinaketa(2006-05-19)

> MUSIKA

INTXAURRONGO.

Lagunekin kantari(2006-05-19)

ekitaldi guztiak ikusi

INKESTA

EZTABAIDA

> DONOSTIALDEA

Donostian gizon eta emakumeen arteko berdintasuna urrun dagoela adierazi berri du ikerketa batek. Zer iritzi duzu zuk? Ados al zaude? Zer egin beharko litzateke aurrerapauso handiagoak emateko?

ZERBITZUAK

- Telefonoak
- Tren eta autobusen ordutegiak
- Farmaziak
- Internet helbideak

IRUDIETAN



0. Piraten aboradatzea Aste Nagusian-2005

berria